



2002/04/02ko prentsa-oharra

KANPO MERKATARITZAREN ESTATISTIKAK (KAMEE) 2001eko 4. hiruhil. eta 2001eko balantzea**EUSKAL AE-KO ESPORTAZIOAK (%-6,4) ETA INPORTAZIOAK (%-12,0) JAITSI EGIN DIRA 2001EKO AZKEN HIRUHILEKOAN**

Hobetu egin da, hala ere, merkataritza-balantzaren superabita, 340 milioi eurora iritsi baita

Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioek %6,4ko hazkunde nominala izan dute 2001eko laugarren hiruhilekoan, eta sendetsi eta areagotu ere egin dute urteko aurreko hiruhilekoetan izandako moteltzea, Eustatek taxututako datuen arabera.

Inportazioek, bestalde, %12,0ko murriztea izan dute hiruhilekoan, inportazio energiazkoen beherakada nabarmenak eraginda, 2001eko azken hiruhilekoan %45,0 jaitsi baitira.

Produktu ez-energiakoa besterik aztertzen ez badugu, ikusiko dugu esportazioak %5,2 jaitsi direla, 2000ko laugarren hiruhilekoaren aldean, eta inportazioek aurreko urteko maila bertsuan dirautela (%-0,4).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2000-2001eko laugarren hiruhilekoa

Unitatea: mila euro

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria-Abendua		D %	Urria-Abendua		D %
	2000	2001		2000	2001	
EUSKAL AE						
GUZTIRA	3.100.568,3	2.902.713,5	-6,4	2.911.520,6	2.562.445,5	-12,0
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIATZKOAK	167.413,2	123.093,6	-26,5	759.588,9	419.769,0	-44,7
PRODUKTU EZ-ENERGIATZKOAK	2.933.155,1	2.779.619,9	-5,2	2.151.931,8	2.142.676,6	-0,4
ALAVA/ARABA						
GUZTIRA	941.603,7	844.888,5	-10,3	532.349,7	493.263,0	-7,3
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIATZKOAK	1.620,1	885,3	-45,4	4.524,4	5.088,3	12,5
PRODUKTU EZ-ENERGIATZKOAK	939.983,5	844.003,2	-10,2	527.825,3	488.174,8	-7,5
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.135.568,1	1.009.180,1	-11,1	1.632.408,8	1.307.714,0	-19,9
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIATZKOAK	161.177,6	118.467,2	-26,5	732.145,8	395.535,0	-46,0
PRODUKTU EZ-ENERGIATZKOAK	974.390,4	890.712,9	-8,6	900.263,0	912.179,1	1,3
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.023.396,6	1.048.644,9	2,5	746.762,1	761.468,5	2,0
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIATZKOAK	4.615,5	3.741,1	-18,9	22.918,7	19.145,7	-16,5
PRODUKTU EZ-ENERGIATZKOAK	1.018.781,1	1.044.903,8	2,6	723.843,4	742.322,8	2,6

Iturria: EUSTAT

Kanpo-merkataritzaren bolumena –esportazioen eta inportazioen batura–, 2001eko azken hiruhilekoan, 5.465 milioi eurokoa izan da. Esportazioek inportazioen gainean duten estaldura-tasa hobetu egin da, 2000ko azken hiruhilekoko %106,5etik 2001eko epe bereko %113,3ra. Ondorioz, igo egin da, orobat, hiruhilekoan izandako

merkataritza-superabita; aurreko urtean izandako 189 milioi euroetatik, 340 milioi euroraino igo da. Hori guztia, inportazioak esportazioak baino areago jaitsi direlako.

Herrialde historikoka begiratuta, 2001eko laugarren hiruhilekoan Gipuzkoan baino ez dira esportazioak hazi, %2,5. Bizkaikoak eta Arabakoak, berriz, %11,1 eta %10,3 beheratu dira, hurrenez hurren.

Inportazioetan ere ikuspegi berbera ageri da: gora egin dute inportazioek Gipuzkoan (%2,0) eta behera Araban (%-7,3) nahiz Bizkaian (%-19,9).

KANPO-MERKATARITZAREN BALANTZEA 2001

JAITSI EGIN DA KANPO-MERKATARITZAREN BOLUMENA, BAINA HOBETU EGIN DIRA MERKATARITZA-SUPERABITA ETA ESTALDURA-TASA, 2001. URTEAN.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bolumena 21.390 milioi eurokoa izan da 2001 urtean, aurreko urtean baino %2,2 txikiagoa. Merkataritza-saldoa 1.621 milioi eurokoa izan da, aurreko ekitaldian baino %3,0 gehiago, baina aurreko urteetan lortutako kopuruetatik urruti.

Produktu ez-energiatzkoen merkataritza-balantza, bestalde, jaitsi egin da, 2000.eko 3.299 milioi euroetatik 2001.eko 3.021 milioi euroetara. Izan ere, inportazio ez-energiatzkoak %1,5 hazi dira, eta esportazio ez-energiatzkoak %1,5 urritu.

Guztizko esportazioek inportazioen gainean duten estaldura aurreko urteko %115,5etik 2001eko %116,4ra pasa da, ia ehuneko-puntu bat handituta. Aitzitik, kontrakoa gertatu da produktu ez-energiatzkoen atalean; hor, estaldura-tasa jaitsi egin da, 2000.eko %142,6tik azken ekitaldiko %138,4ra.

Euskal kanpo-merkataritzaren bilakaera 2000-2001

Unitatea: mila euro

AZALPENA	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	urtarrila-abendua	urtarrila-abendua	? %	urtarrila-abendua	urtarrila-abendua	? %
	2000	2001		2000	2001	
GUZTIRA	11.717.840,8	11.506.032,5	-1,8	10.143.663,6	9.884.864,0	-2,6
PRODUKTU MEAZKO ETA ENERGIAZKOAK	670.967,5	620.329,6	-7,5	2.395.864,7	2.020.247,0	-15,7
PRODUKTU EZ-ENERGIAZKOAK	11.046.873,2	10.885.702,9	-1,5	7.747.798,9	7.864.617,0	1,5
- Nekazaritza-produktuak	411.349,4	458.640,9	11,5	691.373,0	723.376,6	4,6
- Kimika-produktuak	348.767,1	309.735,6	-11,2	356.190,4	372.107,0	4,5
- Plastikak eta kautxuak	788.185,8	793.627,2	0,7	520.580,0	482.493,9	-7,3
- Papera	357.207,6	402.911,1	12,8	283.780,1	249.069,1	-12,2
- Metal arruntak eta manufakturak	2.781.516,4	2.719.283,4	-2,2	2.156.915,7	2.208.754,2	2,4
- Ekipo-ondasunak	5.615.747,8	5.385.385,8	-4,1	2.967.724,0	2.830.839,4	-4,6
- Bestelako manufakturak	640.788,0	703.491,2	9,8	753.064,4	954.659,7	26,8
- Sailkatu gabeak	103.311,2	112.627,7	9,0	18.171,4	43.317,1	138,4
ÁLAVA/ARABA	3.641.499,9	3.399.793,6	-6,6	2.196.095,7	1.804.585,2	-17,8
BIZKAIA	4.447.530,4	4.239.157,0	-4,7	5.460.603,5	5.409.805,3	-0,9
GIPUZKOA	3.628.810,4	3.867.081,8	6,6	2.486.964,4	2.670.473,5	7,4

Iturria: EUSTAT

HELBURU GEOGRAFIKOA ETA PRODUKTU NAGUSIAK

Euskal AEko esportazioen helburu geografikoari dagokionez, ikusten da, lehenik eta behin, Europar Batasuneko herrialdeetara egindako salmentek aurreko urteko mailari eutsi diotela 2001ean (%-0,2): handitu egin dira Frantzia (%5,3) eta Erresuma Batua (%10,7) helburu izan dituzten esportazioak, txikitu egin dira Alemaniara (%-8,4) eta Herbeheretara (%-27,0) egindakoak, eta bere horretan diraute Italia (%0,0) helburu izan dutenak. ELGEko beste herrialdeetarako esportazioak %14,4 jaitsi dira; eta gainerako herrialdeetara zuzendutakoak, %5,5 goratu.

Ondasun-motari erreparatuz gero, *ekipo-ondasunek* Euskal AEko esportazio ez-energiatzkoen erdia baino gehiago hartzen dute, eta %4,1 igo dira haien salmentak. *Metal arruntak eta manufakturak* atala ere sektore garrantzitsua da Euskadiko industrian, eta bere esportazio-bolumenaren %2,2 galdu du. *Nekazaritza-produktuak* (%11,5), *papera* (%12,8) eta *bestelako manufakturak* (%9,8) ataletan hobetu egin dira datuak, aurreko ekitaldiaren aldean.

Inportazioei dagokienez, jaitsi egin dira *produktu ez-energiatzkoak* (%-15,7) eta, neurri txikiagoan, *ekipo-ondasunak* (%-4,6). Hazi egin dira *metalak eta manufakturak* (%2,4), *bestelako manufakturak* (%26,8) eta *nekazaritza-produktuak* (%4,6) ataletako inportazioak.

HERRIALDE HISTORIKOAK

2001. urte osoan, jaitsi egin dira esportazioak Araban (%-6,6) eta Bizkaian (%-4,7), eta igo egin dira Gipuzkoan (%6,6). Joera horiek berak gertatu dira, intentsitate ezberdinekin bada ere, bai guztizko esportazioetan bai ez-energiatzkoetan. *Ekipo-ondasunak* ataleko salmentak txikitu egin dira Araban (%-13,7) nahiz Bizkaian (%-7,0), eta handitu Gipuzkoan (%11,3). Garrantziagatik bigarrena den *metalak eta manufakturak* taldeak, bilakaera negatiboa izan du Bizkaian (%-5,6) nahiz Gipuzkoan (%-2,1), eta aldakuntza positiboa Araban (%4,7).

Inportazioez den bezainbatean, beherakada nabarmena gertatu da Araban (%-17,8), *ekipo-ondasunen* inportazioetan izandako jaitsierak (%-32,6) eraginda. Bizkaian, ia aurreko urteko zifra berberetan mantendu dira guztizko inportazioak (%-0,9), baina asko murriztu dira inportazio energiatzkoak (%-16,3), nabarmen gehitu *ekipo-ondasunak* (%11,2), eta gutxixeago handitu *metalak eta manufakturak* (%2,4). Gipuzkoan, handitu egin dira orobat inportazioak, asko hazi direlako *ekipo-ondasunak* (%25,3), *bestelako manufakturak* (%13,5), *kimika-produktuak* (%15,4) eta *nekazaritza-produktuak* (%5,4) ataletako kanpo-erosketak.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel:+34-945 017 500 Faxe:+34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido Espinosa Tel:+34-945 017 507. Faxe:+34-945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--